

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 498/2022 Erabakia, abuztuaren 2koa. Onartzea Añanako Udalak Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailari egindako kudeaketa esleipena, Añanako Gatz Haraneko Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planaren zenbait kontratazio lizitatzeko**

Next Generation EU funtsek finantzaturako Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan, Añanako Udala "Añanako Gatz Haraneko Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Plana" proiektuaren onuraduna da. Bertan, egin beharreko zenbait jarduketa finkatzen dira. Hala, jasangarritasuneko planeko 2., 4. eta 9. jarduerak gauzatzeko, beharrezkoa da hauexek egitea:

– 2. jarduketa. Zerbitzugunearen eta aparkalekuaren inguruko ibilbideak egokitzea eta ingurumena lehengoratztea (9. jarduketarekin koordinatuta): auzo sareko errepide zatia San Juan de Acre monastegiraino desafektatzeko izapideak egitea, proiektua idazteko laguntza teknikoko zerbitzu bat kontratatzea eta zuzentzea, sektoreko beharrezko izapideak egitea, lurzatiak erosteko eta eragindako zerbitzuak berrezartzeko laguntza tekniko ematea, obrak kontratatu eta zuzentzea, eta segurtasun eta osasun koordinazioa kontratatzea.

– 4. jarduketa. Añanako Gatz Haranaren eta Gesaltza Añanaren arteko hiri lotura eta ibilgarritasuna hobetzea: proiektua idazteko laguntza teknikoko zerbitzua kontratatzea eta zuzentzea, sektoreko beharrezko izapideak egitea, lurzatiak eskuratzeko eta eragindako zerbitzuak berrezartzeko laguntza tekniko ematea, obrak kontratatu eta zuzentzea, eta segurtasun eta osasun koordinazioa kontratatzea.

– 9. jarduketa. Añanako Gatz Haraneko bisitariarentzako zerbitzuen eta aparkalekuen eremua sortzea (2. jarduerarekin koordinatuta): laguntza teknikoko zerbitzua kontratatzea eta zuzentzea proiektua idazteko, sektoreko beharrezko izapideak egitea, lurzatiak erosteko eta eragindako zerbitzuak berrezartzeko laguntza tekniko ematea, obrak kontratatu eta zuzentzea, eta segurtasun eta osasun koordinazioa kontratatzea.

2022ko uztailaren 28ko ohiko osoko bilkuraren erabakiaren bidez, Añanako Udalak erabaki zuen Arabako Foru Aldundiari esleitzea deskribatutako jarduketak egiteko ardura.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikulua ezartzen du zuzenbide publikoko erakundeek aukera dutela administrazio publiko bereko edo beste bateko zuzenbide publikoko beste organo edo erakunde batzuei beren eskumeneko jarduera materialak edo teknikoak egiteko esleipena emateko, eraginkortasunagatik edo jarduera horiek egiteko baliabide tekniko egokirik ez dagoenean. Horrek ez du esan nahi eskumenaren titulartasuna lagatzen denik, ezta eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzen direnik ere.

Aipatutako 40/2015 Legearen 11. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, kudeaketa esleipena administrazioetako zuzenbide publikoko organoen eta erakundeen artean egiten denean, haien arteko hitzarmena sinatuta formalizatu behar da, eta ALHAOean argitaratu behar da.

Aurrekoa kontuan hartuta, Añanako Udalak Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailari egindako esleipena onartzea proposatzen da, Añanako Gatz Haraneko helmugako turismo jasangarritasuneko planaren zenbait kontratazio lizitatzeko laguntza tekniko emateko.

Aginduzko txostenak aztertu dira.

Horregatik guztiagatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

#### ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onestea Añanako Udalak Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailari egindako kudeaketa esleipena, Añanako Gatz Haraneko Helmugako Turismo Jasangarritasuneko Planaren zenbait kontratazio lizitatzeko:

– 2. jarduketa. Zerbitzugunearen eta aparkalekuaren inguruko ibilbideak egokitzea eta ingurumena lehengoratzeko (9. jarduketarekin koordinatuta): auzo sareko errepide zatia San Juan de Acre monastegiraino desafektatzeko indarreko araudiaren arabera egin beharreko izapideak egitea, baldintza teknikoen agiria idaztea, proiektua idazteko laguntza teknikoko zerbitzu bat kontratatzea eta zuzentzea, sektoreko beharrezko izapideak egitea, lurzatiak erosteko eta eragindako zerbitzuak berrezartzeko laguntza teknikoa ematea, obrak kontratatu eta zuzentzeko baldintza teknikoen agiria idaztea, eta laguntza teknikoa segurtasun eta osasun koordinazioa kontratatzeko. Kontratuaren guztizko balio zenbatetsia (BEZa barne): 200.000 euro.

– 4. jarduketa. Añanako Gatz Harana eta Gesaltza Añana artean ibilgarritasuna eta hiri konexioa hobetzea: baldintza teknikoen agiria idaztea, proiektua idazteko laguntza teknikoko zerbitzua kontratatzea eta zuzentzea, sektoreko beharrezko izapideak egitea, lurzatiak eskuratzeko eta eragindako zerbitzuak berrezartzeko laguntza teknikoa ematea, obrak kontratatu eta zuzentzeko baldintza teknikoen agiria idaztea, obren exekuzioa zuzentzea, eta segurtasun eta osasun koordinazioa kontratatzeko laguntza teknikoa ematea. Kontratuaren guztizko balio zenbatetsia (BEZa barne): 1.000.000 euro.

– 9. jarduketa. Añanako Gatz Haraneko bisitariarentzako zerbitzuen eta aparkalekuen eremua sortzea (2. jarduerarekin koordinatuta): baldintza teknikoen agiria idaztea, proiektua idazteko laguntza teknikoko zerbitzu bat kontratatzea eta zuzentzea, sektoreko beharrezko izapideak egitea, lurzatiak eskuratzeko eta eragindako zerbitzuak berrezartzeko laguntza teknikoa ematea, obrak kontratatu eta zuzentzeko baldintza teknikoen agiria idaztea, obren exekuzioa zuzentzea, eta segurtasun eta osasun koordinazioa kontratatzeko laguntza teknikoa ematea. Kontratuaren guztizko balio zenbatetsia (BEZa barne): 400.000 euro.

Kudeaketa esleipen hori dagokion hitzarmena sinatuz formalizatuko da (eranskina).

Bigarrena. Añanako Udalak lizitazio guztien kostu osoa finantzatzeko konpromisoa hartu du bere gain, Next Generation EB funtsen kargura. Horretarako, aurrekontu partida bereizia sortu beharko da, eta kreditu egoki eta nahikoa ezarri beharko da aurrekontuetan, Jasangarritasuneko planean aurreikusitako urteetarako onetsi beharko direnak.

Hirugarrena. Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko diputatuari ahalmenak ematea hitzarmena sinatzeko.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abuztuaren 2a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatua*

**CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ**

**AÑANAKO UDALAK ARABAKO FORU ALDUNDIKO BIDE AZPIEGITUREN ETA  
MUGIKORTASUNAREN SAILARI EGINDAKO KUDEAKETA-MANDATURAKO  
HITZARMENA, AÑANAKO GATZ HARANA HELMUGAKO TURISMO  
JASANGARRITASUNERAKO PLANAREN ZENBAIT KONTRATAZIO LIZITATZEKO**

(AÑANAKO GATZ HARANAREN HELMUGAKO TURISMO  
JASANGARRITASUNERAKO PLANAREN 2., 4. ETA 9. JARDUERAK)

Gasteiz, 2022ko XXXXaren XX(a)

**BILDU DIRENAK**

Alde batetik, Carlos Ibarlucea Martínez jauna, Arabako Foru Aldundiko Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatua, eta, bestetik, Juan Carlos Medina jauna, Añanako Udaleko alkatea.

**ESKU HARTZEN DUTE**

Bi aldeek, zehaztu diren karguak dituzten aldetik eta kide diren erakundeen izenean eta haien legezko ordezkari jardunez, hurrenez hurren hitzarmen hau formalizatzeko eta sinatzeko behar den gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna aitortuz, honako hau

**ADIERAZTEN DUTE**

Next Generation EU funtsek finantzaturako Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan, Añanako Udala "Añanako Gatz Harana helmugako turismo jasangarritasunerako plana" proiektuaren onuraduna da. Bertan, egin beharreko zenbait jarduketa finkatzen dira.

Jasangarritasunerako planeko 2., 4. eta 9. jarduerak gauzatzeko, beharrezkoa da hauexek egitea:

– 2. jarduketa. Zerbitzuen eta aparkalekuen eremuaren inguruko ibilbideak egokitzea eta ingurumena lehengoratzeko (9. jarduketarekin koordinatuta): auzo-sareko errepideko zatia San Juan de Acre monasterioraino desafektatzeko izapideak egitea, proiektua idazteko laguntza teknikoko zerbitzua kontratatzea eta zuzentzea, sektoreko beharrezko izapideak egitea, lur-zatiak erosteko eta eragindako zerbitzuak berrezartzeko laguntza tekniko ematea, obrak kontratatu eta zuzentzea, eta segurtasun eta osasun koordinazioa kontratatzea.

– 4. jarduketa. Añanako Gatz Haranaren eta Gesaltza Añanaren arteko hiri-lotura eta ibilgarritasuna hobetzea: proiektua idazteko laguntza teknikoko zerbitzua kontratatzea eta zuzentzea, sektoreko beharrezko izapideak egitea, lur-zatiak eskuratzeko eta ukituriko zerbitzuak berrezartzeko laguntza tekniko ematea, obrak kontratatu eta zuzentzea, eta segurtasun eta osasun koordinazioa kontratatzea.

– 9. jarduketa. Añanako Gatz Haraneko bisitariarentzako zerbitzuen eta aparkalekuen eremua sortzea (2. jarduerarekin koordinatuta): laguntza teknikoko zerbitzua kontratatzea eta zuzentzea, proiektua idazteko, sektoreko beharrezko izapideak egiteko, lur-zatiak erosteko eta ukituriko zerbitzuak berrezartzeko laguntza tekniko emateko, obrak kontratatu eta zuzentzeko eta segurtasun eta osasun koordinazioa kontratatzeko.

Añanako Udalak onartu zuen Arabako Foru Aldundiari agintzea deskribatutako jarduketak egiteko, Gobernu Batzordearen 2022ko uztailaren 28ko Erabakiaren bidez. Erabaki hori ohiko, ezohiko edo presako ezohiko bilkuran hartu zen.

Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikulua ezartzen du zuzenbide publikoko erakundeek aukera dutela administrazio publiko bereko edo beste bateko zuzenbide publikoko beste organo edo erakunde batzuei beren eskumeneko jarduera materialak edo teknikoak egiteko mandatua emateko, eraginkortasunagatik edo jarduera horiek egiteko baliabide tekniko egokirik ez dagoenean. Horrek ez du esan nahi eskumenaren titulartasuna lagatzen denik, ezta eskumen horretaz baliatzeko funtsezko elementuak lagatzen direnik ere.

Arabako Foru Aldundiak, bere eskumenak baliatuz eta partzuergoko erakundea den aldetik, eta egokituz jotzen duenez onartzea, mandatua onartu du, Foru Gobernu Kontseiluaren 2022ko abuztuaren 2(e) ko Erabakiaren bidez.

Aipatutako 40/2015 Legearen 11. artikuluan xedatutakoa aplikatuz, kudeaketa-mandatua administrazioetako zuzenbide publikoko organoen eta erakundeen artean egiten denean, haien arteko hitzarmena sinatuta formalizatu behar da, eta hitzarmena ALHAOean argitaratu behar da.

Azaldutakoaren arabera, eta alderdi sinatzaileak ados egonik eskatutako kudeaketa-mandatua arautuko duten zehaztapen eta baldintzekin, hitzarmen hau formalizatu dute klausula hauen arabera:

## KLAUSULAK

### LEHENENGOA.– Xedea.

1. Hitzarmen honen xedea Añanako Udalak Arabako Foru Aldundiari (hemendik aurrera, AFA) egindako mandatua formalizatzea eta arautzea da, zenbait kontratu lizitatzeko, eta langileei eta gobernu- eta administrazio-organoei laguntzea, beharrezkoa denean, "Añanako Gatz Harana turismo jasangarritasunerako plana"ren 2., 4. eta 9. jarduketan kudeaketaren esparruan, Next Generation EU funtsek finantzatutako suspertze, transformazio eta erresilientzia planaren barruan.

2. Mandatuaren xede diren jarduketak "Gesaltza-Añanako harresia eta San Kristobal ingurua aztertze, zaharberritze eta balioa nabarmentzeko proiektua"ren barruan daude, eta Añanako Udala da proiektuaren sustatzailea.

Hain zuzen, kudeaketa-mandatua honako hauetarako eratzen da:

– 2. jarduketa. Zerbitzuen eta aparkalekuen eremua lehengoratzea eta ibilbideak egokitzea (9. jarduketarekin koordinatuta): auzo-sareko errepidearen zatia San Juan de Acre monasterioraino desafektatzeko beharrezkoa den izapidetzea, baldintza teknikoen agiria idaztea, proiektua idazteko laguntza teknikoko zerbitzua kontratatzea eta zuzentzea, sektoreko beharrezko izapideak egitea, lur-zatiak eskuratzeko eta ukituriko zerbitzuak berritzeko laguntza teknikoa ematea, obrak kontratatu eta zuzentzeko baldintza teknikoen agiria idaztea, obren exekuzioa zuzentzea, eta segurtasun eta osasun koordinazioa kontratatzeko laguntza teknikoa ematea. Kontratuaren guztizko balio zenbatetsia (BEZa barne): 200.000 euro.

– 4. jarduketa. Añanako Gatz Harana eta Gesaltza-Añana artean ibilgarritasuna eta hiri-konexioa hobetzea: baldintza teknikoen agiria idaztea, proiektua idazteko laguntza teknikoko zerbitzua kontratatzea eta zuzentzea, sektoreko beharrezko izapideak egitea, lur-zatiak eskuratzeko eta ukituriko zerbitzuak berrezartzeko laguntza teknikoa ematea, obrak kontratatu eta zuzentzeko baldintza teknikoen agiria idaztea, obren exekuzioa zuzentzea, eta segurtasun eta osasun koordinazioa kontratatzeko laguntza teknikoa ematea. Kontratuaren guztizko balio zenbatetsia (BEZa barne): 1.000.000 euro.

– 9. jarduketa. Añanako Gatz Haraneko bisitariarentzako zerbitzuen eta aparkalekuen eremua sortzea (2. jarduerarekin koordinatuta): baldintza teknikoen agiria idaztea, proiektua idazteko laguntza teknikoko zerbitzu bat kontratatzea eta zuzentzea, sektoreko beharrezko izapideak egitea, lur-zatiak eskuratzeko eta ukituriko zerbitzuak berrezartzeko laguntza teknikoa ematea, obrak kontratatu eta zuzentzeko baldintza teknikoen agiria idaztea, obren exekuzioa zuzentzea, eta segurtasun eta osasun koordinazioa kontratatzeko laguntza teknikoa ematea. Kontratuaren guztizko balio zenbatetsia (BEZa barne): 400.000 euro.

3. Kudeaketa-mandatu horrek ez dakar berekin Añanako Udalak Añanako Gatz Harana helmugako turismo jasangarrirako planei aurkeztutako eskaeraren ondoriozko betebeharrak, eskumenak eta konpromisoak lagatzea.

BIGARRENA.– Alderdi sinatzaileen eskubideak eta betebeharrak.

1. Mandatua egin duen zuzenbide publikoko erakundea denez, Añanako Udalak eskubide hauek ditu:

a) AFAk egindako eta hitzarmen honen xedearen parte diren jarduketan berri izatea, baita gauzatzen diren jarduketan kontratazioan eta jarraipenean eta proiektuari buruz hartzen diren erabakietan aktiboki parte hartzea ere, proiektua zuzenean lotuta baitago Gesaltza-Añanako harresia eta San Kristobal ingurua aztertzeko, zaharberritzeko eta balioa nabarmentzeko proiektuarekin, eta Añanako Udala baita proiektu horren sustatzailea.

b) AFARI eskatzea klausula honen laugarren atalean zehaztutako betebeharrak bete ditzala.

2. Era berean, Añanako Udalak betebeharrak eta konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Mandatuaren xedeari oinarria emango dioten edo hura barne hartuko duten egintza edo ebazpen juridikoak eta teknikoak ematea (kontratazio-espeditenteak onartzea, kontratuak esleitzea, likidazioa, etab.).

b) Hitzarmen honen xedea osatzen duten jarduketa guztien kostu osoa finantzatzea, Next Generation EB funtsen kargura. Horretarako, aurrekontu-partida berezia sortu beharko da, eta kreditu egoki eta nahikoa ezarri beharko da aurrekontuetan; Jasangarritasunerako Planean aurreikusitako urteetarako onartu beharko dira.

c) Jasotako Next Generation EB funtsak Añanako Gatz Harana helmugako turismo jasangarritasunerako planeko jarduerak egiteko erabiltzea, eta funts horiek xede horretarako soilik erabiliko direla bermatuko duen kontu blokeatua edukitzeko bermea ezartzea.

d) Laguntzaren deialdia arautzen duen nahitaezko araudia betetzea, baita honako hauek ezarritako betekizun guztiak ere: Next Generation EB funtsen araudi espezifikoak eta HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren (STEP) kudeaketa-sistema konfiguratzeko duena; HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, zeinaren bidez ezartzen baitira Estatuko, autonomia erkidegoko eta tokiko sektore publikoko entitateek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua, plan horretan jasotako neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-betearazpenaren mugarrien eta helburuen betetze-mailearen jarraipena egiteko, eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 (EB) Erregelamendua, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.

e) Añanako Udalak kontratatutako duen "Añanako Gatz Harana helmugako turismo jasangarritasunerako plana" proiektuaren kofinantzaketa eta koordinazio integrala kudeatzeko laguntza teknikoak zerbitzuaren bitartez kudeatzea jarduketan horiek.

f) Arabako Foru Aldundiak ziurtatutako lanak (obrak eta zerbitzuak) ordaintzea honako mandatu honen ondorioz, kasuan kasuko kontratazioan ezarritako baldintzen arabera, baita balizko obra-gehikuntzen eta obren eta zerbitzuen onarpenaren eta likidazioaren ondorioen arabera ere, betiere Añanako Udaleko esku hartzeko organoaren alde aurreko baimena izan baldin badute.

g) Agindutako lanak berrikusteko eta koordinatzeko egiten diren jarraipen-bilera guztietara joatea.

3. Arabako Foru Aldundiak, agindutako zuzenbide publikoko erakundea den aldetik, eskubide hauek ditu:

a) Añanako Udalarik eskatzea klausula honen bigarren atalean zehaztutako betebeharrak bete ditzala.

b) Mandatuaren xedea gauzatzeko behar diren erabakiak hartzea, Arabako Foru Aldundiaren araudiak ezarritako eskumenak eta eskuordetzeak banatzeko barne-arauekin bat etorritik, eta bizkortasunaren, eraginkortasunaren, efizientziaren eta erantzukizunaren printzipioei jarraituz betiere.

c) Kudeaketa-mandatuaren xedea zuzenean edo zeharka betetzea, lege ezarritako edozein modutan.

4. Era berean, AFA behartuta dago eta konpromisoa hartzen du:

a) Hitzarmen honen xedea betetzeko behar diren jarduketak egitea. Hauexek izango dira jarduketak: lehen klausulako lehen eta bigarren ataletan zerrendatutako kontratuak lizitzeko behar den dokumentazioa prestatzea, eskaintzak baloratzea eta kontratuak esleitzeko proposamena egitea, kontratuak gauzatzeko zuzendaritza egitea, nahitaezko ziurtagiriak eta aktak egitea, koordinazio-bilerak egitea, segurtasun eta osasun planak onartzeko proposamenak egitea, kalitatearen eta hondakinen kudeaketa gainbegiratzea, behar diren izapidetze sektorialak egitea, lur-zatiak erosteko eta ukitutako zerbitzuak berrezartzeko laguntza tekniko ematea, segurtasun eta osasun koordinazioa kontratatze laguntza tekniko ematea eta kontratatutako obrak eta zerbitzuak behar bezala garatzeko beharrezkoak diren gainerako zeregin tekniko guztiak.

b) AFAk egin dituen eta hitzarmen honen xedearen parte diren jardueren berri ematea Añanako Udalari.

c) AFAren Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailaren eskumenen barruan, aipatutako jarduerak behar bezala kudeatu eta laguntzeko beharrezkoa den beste edozein dokumentazio bidaltzea, hala nola, justifikazioa, jarraipena, txostenak eta memoriak egitea, bileretara joatea eta/edo ekintzak planifikatzea.

d) Agindutako lanak berrikusteko eta koordinatzeko egiten diren jarraipen-bilera guztietara joatea.

HIRUGARRENA.– Hitzarmena aldatzeko araubidea.

1. Hitzarmen honen edukia aldatu ahal izango da. Horretarako, alderdi sinatzaileen berriazko adostasuna beharko da, kasu bakoitzean legez eskatzen diren formalitateak betez, eta hitzarmen honi eranskin gisa gehituko zaio.

2. Alderdi sinatzaileek berehala eta berriaz jakinarazi beharko dute hitzarmen honen xedea, izaera eta/edo baldintzak aldatu edo eraginpean har ditzakeen edozein gorabehera.

LAUGARRENA.– Indarraldia.

Hitzarmen honen xede den mandatuaren indarraldia agindutako lanak egiteko behar den denborara luzatuko da, eta, nolabehar ere, hitzarmen honen xede diren jarduketak egitean amaituko da. Epea ezin izango da lau urtetik gorakoa izan, baina beste lau urtez luza daiteke.

BOSGARRENA.– Azkentzea.

1. Hitzarmen hau, eta harekin batera hitzarmenaren xede den mandatu, azkendu egingo da haren xede diren jarduketak betetzen direnean edo suntsiarazteko arrazoi hauetakoren bat gertatzen denean:

a) Alderdiak hala adostuz gero, ezarritako indarraldia amaitu aurreko edozein unetan, hitzarmena azkentzeko akordio baten bidez.

b) Alderdi sinatzaileetako edozeinek salatzen badu; salaketa garaiz eta behar bezala jakinarazi beharko zaio beste alderdiari, arrazoitutako akordioaren bidez.

c) Ezarritako indarraldia betetzen denean.

d) Hitzarmen honen xedean zehaztutako jarduerak amaitzeagatik.

e) Alderdi sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzeagatik.

f) Legeetan ezarritako beste edozein arrazoi.

2. Alderdi sinatzaileetako batek bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak betetzen ez baditu, besteak errekerimendu bat jakinarazi ahal izango dio betebeharra bete ez duenari, epe jakin batean bere ustez bete ez dituen betebeharrak edo konpromisoak bete ditzan.

Errekerimenduan adierazitako epea gainditzean ez betetzeak jarraitzen badu, zuzendu zuen alderdiak ez betetzaileari jakinaraziko dio suntsiarazteko arrazoia dagoela, eta hitzarmena suntsiarazitzat joko da.

Hitzarmen hau arrazoi horrengatik suntsiarazten bada, beste alderdi sinatzaileari eragindako kalteak ordaindu beharko zaizkio.

3. Nolanahi ere, hitzarmen hau azkentzeak hitzarmena likidatzea ekarriko du berekin, alderdi sinatzaile bakoitzaren betebeharrak eta konpromisoak zehazteko. Horretarako, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 52. artikuluan xedatutakoa bete beharko da.

SEIGARRENA.– Hitzarmenaren izaera eta araubide juridikoa.

1. Hitzarmen hau administratiboa da, eta bat dator Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikulua hiruugarren idatz-zatian adierazitako hitzarmenen tipologiarekin, administrazioetako zuzenbide publikoko organoen eta erakundeen arteko kudeaketa-mandatuak formalizatzeko; haren interpretazioa eta garapena Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean eta aplikatu beharreko gainerako legerian eta araudian ezarritakoaren arabera arautuko da.

2. Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8. artikuluan xedatutakoaren arabera, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiei dagokie hitzarmen hau jurisdikzio-bidean berrikusteko eskumena, baita hura betearazteko emandako egintza eta erabakiena ere.

ZAZPIGARRENA.– Hitzarmena argitaratzea eta jakinaraztea.

Hitzarmen honen xede den kudeaketa-mandatu Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta AFA arduratuko da argitalpen hori egiteaz.

Eta adostasuna adierazteko, alderdiek hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

*Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatua*

*CARLOS IBARLUCEA MARTÍNEZ*

*Añanako Udaleko alkatea*

*JUAN CARLOS MEDINA*